



Emakumeen eskubideen alde. - Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko eguna ospatu zuten Lasarte-Orian. Aldarrikapenez betetako ospakizuna izan zen ordea, herriko emakumeek hainbat ekintzen bidez bizi duten egoera salatu nahi izan baitzuten. Larunbat eguerdiko elkarretaraztean 40 bat lagun bildu ziren "Martxoak 8, emakumeen eskubideen alde" lema-aren atzean. Argazkian ikus daitezkeen afixa more horietan hainbat eskubide eskakizun idatzi zituzten, besteak beste: "Amatasun libre eta kontzientea izateko eskubidea, gaeuz bakarrik ibiltzeko eskubidea, zaintza eta etxeko lanak baloratuak izateko eskubidea, beldurrik gabe bizitzeko eskubidea, lan baldintza duinak izateko eskubidea, esteroporik gabeko emakumeak izateko eskubidea eta burujabeak izateko eskubidea". Halere, horiek guztiak lortzeko oraindik jendartearen lan asko egin beharra dagoela gogorarazi zuten. Bestalde, Kukuka eta Lan eta Lan taldeen antzerkiak edota emakumeen afari eta bazkariak ere izan dira asteburu osoan zehar eta Donostiako Lilatoeian 103 emakume lasarteoriatarrek parte-hartu zuten atzo. **/4. ETA 5. ORRIALDEAN**

3 SOLASKIDE Euskal Herriko Solaskideen topaketa Etxalarren

Euskal Herri osoko mintzalagunek iteera egingo dute Etxalarera apirilaren 4tik 6ra. Hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute: sukaldaritza, masaje tailerra, ibilaldiak, kantu gaua... Herriko solaskideek izena emateko solaskide@takun.com-eramezua bidali edo Ttakuneko bulegotik pasa beharko dute.

OKERRAK ZUZENTZEN "Argizaiola" Juan Jose Mendiluzeren omenezko lana

Ostiraleko TXINTXARRI aldizkarian, Atsobarreko parkean zegoen "Argizaiola" eskultura desagutu zelaren berri eman genuen. Honetan Juan Jose Mendizabalaren oromenean egina zegoela aipatzen genuen, baina okerreko informazioa zen, Juan Jose Mendiluzere baina omendua.



Ostiralean martxoaren 14an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Martxoaren 17an izango da hurrengo zenbakia zuen etxeetan.

EUROMIKEL S.L.

N-1 Ctra 443 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365403
boxos@euromikels.com
www.euromikels.com

Auto Mekanika BOXES

943 380850

Utsera KOTXEA, MOTO eta FURGONETARI ERREBESGA egiten eta OLJOA aldatzen.

zorgatli hainbeste ordaindu 7

Hiru aukera dituzu :
zuk egiten duzu
zuk gurekin ikasiz
guk egiten dugu

DELITU ETA ESKATU PREZIOAK KONPROMEZURIK GABE

Adituak dio

Hitz eta pitz



Jesus Muñoz
Psikologoa

ikusten, sentitzen benetan inguruan ditugun emakumeak. Egia da ere agian emakume asko ez direla gai ikusten euren burua entzun, begiratu edota sentitzeko.

Historian zehar emakumeengatik borrokatu duten beste emakumeei buruz hitz egin nezake, eskubide, berdintasunaren alde eta indarkeria-aren kontra egin dutenak baina nire bizitza ezagutuko emakumei buruz hitz egingo dizuet, niretzat eredu eta aldatzeko posible dela erakusten dutenak.

Marcelak orain 72 urte ditu. Ez zen ezkondu. Jubilatuta arte lan egin zuen denda batean. Urte luzeetan bizi izan da trisurarekin, isilik, beste batzuek irizten zutenaren aurrean bere haserrea azaldu gabe. Duela 9 urte bere hirian ikastaro batean izena eman zuen, publikoaren aurrean hitz egiteko ikastaroa zen eta bertan jendea ezagutu, lagun berriak egin eta bere burua hobeto ezagutzen hasi zen, bera nor zen ulertu eta beste modu batera bizitzen hasteko hautua egin zuen. Konfiantza lortu zuen lehenengo, gero erabakia eta ekintza bere jarrera aldatu eta bere bizitza ere. Orain inoiz bezala hitz egin, irribarre egiten du. Lehen nolakoa zen gogoratzen duen bakoitzean harro sentitzen da orain lortu duenarekin eta noski, ekintza ezberdinetan izena ematen jarraitzen du.

Cristinaren bizitza nolabait eten zen 41 urterekin gaixotasun kroniko bat diagnostikatu ziotenean. Honek guztiz mugatzen du. Senarra, lagun eta bi alaben laguntza izan arren txiki sentitzen zuen, ahal. Orain 52 urterekin zoriostua da. Egunero disfrutazeagatik borrokatzen du, ikasteko, ondo pasatzeko... dantza egiten du eta dantza talde bat zuzentzen du, lasterketa ezberdinetan parte hartzen du, erabakia hartzeraz ere zen inoiz asartzan bestean onarpenik gabe eta orain egiten du. Bere buruari beti hiru galdera egiten dizkio: Ahal du? Egin beharko nuke? Nahi du?

Arantxak ibildibe bat hautatu du, 38 urterekin ama izan nahi du bakarrik, prozesua hasi eta beldur eta zalantza gaindituta bere erabaki sendoarekin aurre egiteaz harro sentitzen da, badaki ez dela erraza izango umea bakarrik hezteko baina bere gaitasunetan sinesten du. Bi karrera ditu, irakasle bikaina da eta lagun ona.

Susana 20 urte eta gero dibortziatzea erabaki du. 45 urterekin berriz jaio dela sentitzen du semea zaindu, lan egin... Hasieran batez ere beldur eta zalantza pila sentitzen zituen baina egin du, zerbaitek esaten zion bere bizitza aldatu behar zuela eta egin zuen. Bizitzaz gozatzeko modu berriak ari da ezagutzen, maiztuta, errespetatuta sentitzen da.

Benetako personak dira, egoera zailak gainditu eta egunerokoan borrokan jarraitzen dutenak hobetu eta ondo sentitzeko. Askotan jalabek izan eta entzun zutenarekin ados ez eta euren erabakien jabe egin zirenak lehenengo.

Gizon bezala ulertu behar dugu hautatu dezakegula gure inguruan ditugun emakumeak beste modu batera begiratu, entzun eta sentitzea. Aipatutako emakume bakoitzak erabaki zuen momentu batean beste modu batera bizitzea, bisibile egin ziren lehenengo eurentzat eta gero besteentzat.

Zer nahi duzue zuk egin?

Emakumearen nazioarteko egunak gogoratzen digu munduan emakume asko dagola egoera txarrak, gutxiago izango balira bezalako baldintza eta tratua jasaten.

Gogora ekartzin digu ere desberdintasun hau modu askotara azaleratzen dela batzuetan irairnekin, eraso fisikoekin, mesprezua,... azken batean bioelentziaren aurpegi desberdinak.

Baina zergatik dago eta mantentzen da sexuen arteko desberdintasun hau?

Alde batetik garrantzitsua da konturatzea ez dugula entzuten, emakumeak. Egia da ere agian emakume asko ez direla gai ikusten euren burua entzun, begiratu edota sentitzeko.

Historian zehar emakumeengatik borrokatu duten beste emakumeei buruz hitz egin nezake, eskubide, berdintasunaren alde eta indarkeria-aren kontra egin dutenak baina nire bizitza ezagutuko emakumei buruz hitz egingo dizuet, niretzat eredu eta aldatzeko posible dela erakusten dutenak.

Marcelak orain 72 urte ditu. Ez zen ezkondu. Jubilatuta arte lan egin zuen denda batean. Urte luzeetan bizi izan da trisurarekin, isilik, beste batzuek irizten zutenaren aurrean bere haserrea azaldu gabe. Duela 9 urte bere hirian ikastaro batean izena eman zuen, publikoaren aurrean hitz egiteko ikastaroa zen eta bertan jendea ezagutu, lagun berriak egin eta bere burua hobeto ezagutzen hasi zen, bera nor zen ulertu eta beste modu batera bizitzen hasteko hautua egin zuen. Konfiantza lortu zuen lehenengo, gero erabakia eta ekintza bere jarrera aldatu eta bere bizitza ere. Orain inoiz bezala hitz egin, irribarre egiten du. Lehen nolakoa zen gogoratzen duen bakoitzean harro sentitzen da orain lortu duenarekin eta noski, ekintza ezberdinetan izena ematen jarraitzen du.

Cristinaren bizitza nolabait eten zen 41 urterekin gaixotasun kroniko bat diagnostikatu ziotenean. Honek guztiz mugatzen du. Senarra, lagun eta bi alaben laguntza izan arren txiki sentitzen zuen, ahal. Orain 52 urterekin zoriostua da. Egunero disfrutazeagatik borrokatzen du, ikasteko, ondo pasatzeko... dantza egiten du eta dantza talde bat zuzentzen du, lasterketa ezberdinetan parte hartzen du, erabakia hartzeraz ere zen inoiz asartzan bestean onarpenik gabe eta orain egiten du. Bere buruari beti hiru galdera egiten dizkio: Ahal du? Egin beharko nuke? Nahi du?

Arantxak ibildibe bat hautatu du, 38 urterekin ama izan nahi du bakarrik, prozesua hasi eta beldur eta zalantza gaindituta bere erabaki sendoarekin aurre egiteaz harro sentitzen da, badaki ez dela erraza izango umea bakarrik hezteko baina bere gaitasunetan sinesten du. Bi karrera ditu, irakasle bikaina da eta lagun ona.

Susana 20 urte eta gero dibortziatzea erabaki du. 45 urterekin berriz jaio dela sentitzen du semea zaindu, lan egin... Hasieran batez ere beldur eta zalantza pila sentitzen zituen baina egin du, zerbaitek esaten zion bere bizitza aldatu behar zuela eta egin zuen. Bizitzaz gozatzeko modu berriak ari da ezagutzen, maiztuta, errespetatuta sentitzen da.

Benetako personak dira, egoera zailak gainditu eta egunerokoan borrokan jarraitzen dutenak hobetu eta ondo sentitzeko. Askotan jalabek izan eta entzun zutenarekin ados ez eta euren erabakien jabe egin zirenak lehenengo.

Gizon bezala ulertu behar dugu hautatu dezakegula gure inguruan ditugun emakumeak beste modu batera begiratu, entzun eta sentitzea. Aipatutako emakume bakoitzak erabaki zuen momentu batean beste modu batera bizitzea, bisibile egin ziren lehenengo eurentzat eta gero besteentzat.

Zer nahi duzue zuk egin?

Emakumeek diskriminazioa pairatzen dute egun?



Rafa Lopez

Lanean eta gertean orokorrean pairatzen da oraindik diskriminazioa. Soldata aldetik gutxiago irabazten dutela esaten da eta noski hori parekatu beharko litzateke gaur egun. Egoera gaizki dago hori aldatzen ez den bitartean. Emakume guztiak manifestazio batean atera beharko lirateke eta akaso greba egin etxe askotan ere. Horrek gauza asko azaleratuko litzuzke nire ustetan.



Laura Gonzalez

Bai oraindik berdintasun osoa egoteko asko falta da. Lan munduan bereziki ez zaigu berdin kontsideratzen eta kualifikazio maila altuagoa izanda emakumeak oraindik gizona kontratatzeraz josten dute enpresa askok. Langabezia tasa altuagoa da emakumeen artean. Martxoaren 8a ospatu beharra ez dagoenean izango da benetako berdintasunera heldu garetia.



Txema Soriano

Bai, nire uestez orain duela urte batzuk baino gutxiago baina badak diskriminazioa. Munduko herrialde guztietan dagoen arazoa da eta oraindik asko dago egiteko hau aldatzeko. Nik ueste gero eta gehiago guztiantziazten ari gara baita gizonok ere, egoera honi buelta eman behar zaiola baina zoritxarrez Martxoaren 8a aldarrikapen eguna izaten jarraitu beharko du.

Iruditan



Bruneteko langileak Antxon Agirre Sorondoren "Oriá, bizitzako erkeidago, laneko eremu" liburuak iruditan.

Emakumeak lantegietan

1894. urtean Brunet lantegian 129 gizon eta 271 emakume zuten eta 190 emakume eta 1947an 130 gizon eta 270 emakume. Herriko lantegi handienean emakumeak izan ziren langileen gehienago sorreratik hori bai, 1947an bulegoetan lan egiten zuten 10 langileak gizonetakoak ziren eta berdin tailer mekaniko eta arzetegian zeuden 19ak ere gizonak. Emakume askok ezkondu eta etxetik kanpo lan egiteari uzten zituen. Garaiok kroniken jasotzen zen bezala, ezkondu eta orduan emakumeari gizonen etxetik dirua administratu, seme-alaben heziketa eta etxeko gainerako lan guztiak. Baita guraso zein osaba-izeba ezkondugabeena ere.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORLÁ
UDALAK

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigue, Maider Azumendi, Jon Aluna E.
txinbarri@txinbarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Arriola
publizitatea@txatun.com
administrazioa@txatun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maialen Arri, Agier Odoizola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amador

EUSKARA

Solaskideentzat asteburu pasa

Euskal Herri osoko solaskideentzat Etxalarrera irteera



Ekintza guztien artean mendi irteera ere egin zuten mintzalagunek iaz Etxalarren.

Euskal Herri osoko mintzalagunentzako irteera izango da Etxalarren apirilaren 4tik 6ra. Honetan hainbat ekintza egiteko aukera izango dute besteak beste, sukaldaritza, masaje tailerra, mendi bueltak edota kantu gaua. Herriko solaskideek izena emateko aukera izango dute solaskide@ttakun.com-era mezu bidalita edo Ttakuneko bulegotik pasata.

TXINTXARRI

Apirilaren 4tik 6ra, Euskal Herri osoko mintzalagunentzako asteburu pasa antolatuta dute Etxalarko Mokorroko Borda baserriko lagunek.

Sukaldaritza eta masaje tailerrak, kantu gaua, mendi bueltak, herritarrekin solasaldiak eta mila bizipen izango dira Etxalarren.

Iaz 50 mintzalagun joan

ziren Etxalarrera, eta poz pozik itzuli ziren denak. Asko berriz joateko gogoz geratu ziren... eta oraintxe dago aukera.

Ostiral arratsaldean iritsi eta igande bazkalostera arte, otorduak, lotarako lekua, tailerrak eta ibilaldiak... guztia, 80eurorren truke.

Leku mugatuk

Izen ematea martxoaren 28ra arte egongo da zaba-

lik. Baina antolatzailerik adierazi dutenez, 26 lagunentzako lekua dago Mokorroko Borda baserrian, eta izena ematen duten lehenengoek izango dute lehentasuna.

"Asteburu berezi bat izateko, euskaraz gozatzeko, mintzalagun berriak ezagutzeko zein herriko txokoetan murgiltzeko... zatzot Etxalarrera!"

Irteeran parte hartzeko izazko argazkiak hemen dituzte mintzalagunek www.mintzalaguna.org/goazen-etxalarrera/.

Herrian solaskiden parte hartzen ari direnek izena emateko Ttakunetik pasa edota solaskide@ttakun.com-era mezu bidalita egin ahal izango dute.

Izan begirale udalekuean

Certu dugu udaberria eta konturatu orduko udan ere izango gara. Gazte gehienek oporretan ederki igarotzea dute buruan, baina batzuk lan egiteko prest daude. Ttakun kultur elkarrekin herriko gazteek aukera bat eskaini nahi die, begirale izatea.

Uztaila edo abuztuaren zehar udako txokoetan herriko gazteokien primeran pasa edo Mendigorria eta Gobiaren udaleku itxietan ibilaldiak egin eta milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek izena emateko aukera dute dagoeneko.

Baldintzak

Begirale ugari behar dira batez ere udako txokotarako.



Izena emateko azken eguna apirilaren 10ean.

Aisia saileko arduradunek azpimarratu dutenez, bi baldintza daude 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukuna izatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun kul-

tur elkartera hurbildu edo aisia@ttakun.com helbidera mezu bat bidali besterik ez du.

Begirale poltsan izena emateko azken eguna apirilaren 10a izango da.

MUGIKORTASUNA

Lasarte-Oria - Donostia bidegorria

Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak martxoaren 12an, asteazkena, Lasarte-Oria Donostiarekin batuko duen bidegorriaren aurkezpen publikoa egingo dute, Manuel Lekuona kultur-etxean, 18:30etik aurrera.

Bilera honetan Aldundiko Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturarako departamentuko teknikariak egongo dira, eta Aldundiak lotura hau gauzatzeko egiten duen proposamena azalduko die bertaraten diren herritarrei.

Ekitaldian hizlari izango dira herriko mugikortasun zinegotzia Nerea Sanchez eta Unai Eroitzena Aldundiko mugikortasun zuzendaria.

IPIUIN KONTALARIA

Mundu berriak ezagutzeko

Ipiuin-kontalari saio berria izango da bihar, Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburuetan.

6-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekimena da aste honetako, beraz, ipuiin kontaketa izango da. Mundu desberdinetan barrena ibili eta milaka pertsonaia ezagutzeko aukera aparta izango dute saiora hurbiltzen diren gazteok.

UDALBATZARRA

Ohiko batzarra izango da bihar

Hilabeteko bigarren astearta izanik, bihar ohiko udal bilkura izango da 18:30ean. Gaien artean, Donostia etorbideko bigarren zenbakiko garajeen salmentarako baldintzen agiria onartuko dute alderdiek, Gaztelekuaren araudia eta animaliak babesteko eta edukitzeko udal araudia behin-betiko onepena izango da.

Udaleko talde sozialistak Oriako Karmengo Amaren kaperari buruzko mozioa aurkeztuko du, EAJK, herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzeko ordenantzen inguruko mozioa eta Bilduk kontrato publikoetan klausula sozialak deiturikoaren inguruko. Udal kontuhartzaileak izango du hitza ondoren eta azkenik, galdera eta erreguen txanda izango da.

IKASTAROA

Oinarriko defentsa pertsonala

Lapurreta, eraso, genero indarkeria kasuak... gero eta entzunagoak dira. Hau dela eta, DYK defentsa pertsonaleko oinarriko teknikak ikastaroa eskainiko du martxoaren 18an, Usturbilan.

Ikastaro honetan edozein pertsona parte hartu dezake, ez da beharrezkoa fisikoki sasi onean egotea edo adin zehatz bat izatea.

Helburua erasotzaile posible batengatik ihes egiteko orduan baliagarri diren ezaguerak eta abileziak eskuratzea da, eta egoera kritiko bati erantzuteko gai izatea, lehendabizi, distrazio eta autokontrolerako teknikak erabiliz; eta agresioa saihestezina bada, erasotzaile menderatzeko autodefentsazko teknikak erabiliz.

Saioak astearte eta ostegunetan izango dira martxoaren 18tik apirilaren 10era Usturbilgo Kiroledegian, 19:30etik 21:30etara.

Ikastaroaren prezioa 80 eurotako da eta plazak mugatuk dira prestatutzaren kalitatea bermatzeko asmoz. Izena emateko, edo informazio osagarria eskatzeko, 943 464 622 telefonora deitu behar da.

ELKARTASUNA

Azoka solidarioa

Donostiako Santa Teresa ikastetxeak azoka Solidarioa antolatuko du ikastetxean, martxoaren 13 eta 14ean, 9:30etik 13:30era eta 15:15etik 18:00etara.

Azokan lortutako diruarekin hiru proiektu diruz lagunduko dira: Manos Unidas-ek Kongoko Errepublikan Demokratikoan duen komunitate abere-ustiapena; Fundeok Uruaguain duen nekazal ekologiko etxea eta Caritas-ek duen Gipuzkoako familia beharrenei laguntza zerbitzua.

Sarien zozketa ere izango da: jateke desberdinetan bazkari eta afariak, ile-apaindegirako txartelak...

Ikastetxeak ikasle eta guraso lasarteoritarrek gonbidatzen ditu ekimen honetan parte hartzera.

Eskolarteko Bertsolari txapelketa Lasarte-Orian

Martxoaren 14an Manuel Lekuonan eta Arrieskalleta elkartean izango dira saioak

Gipuzkoako Bertsozale elkarteak eta Ikastolen elkarteak elkarlanean 34. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketa antolatu dute. Herri desberdinetan izango dira saioak eta martxoaren 14an Lasarte-Orian izango da. Hiru saio desberdin izango dira, idatzizko sariketa, saio didaktikoa eta bat-bateko txapelketako sailkapen saioa. Azken hau, bertso-afari formatuan egingo da.

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketa lehenengoz Lasarte-Orian izango da. Manuel Lekuona kultur-etxean eta Arrieskalleta elkartean ber-soaz gozatzeko aukera izango dute herriko gazte, zein helduek martxoaren 14an.

Eskolarteko txapelketako 34. edizioa martxoaren 7an hasiko da Zarautzen eta Maiatzaren 11n, igandean, Arrasateko Amaia antzokian amaituko da bat-bateko finaleraino.

28 ikastetxeetako 956 ikasle, 10 bertso-eskolelako taldeak, 15-18 urte arteko 34 bertsolari eta 12 bertsolari ezagun izango dira lehiaketan parte hartuko dutenak.

Aldaketak

Aurten lehenoz Gipuzkoako Bertsozale elkarteak eta Ikastolen elkarteak batera antolatuta dute eta txapelketak berrikuntza ugari dakartzata bai filosofian baita formatuan ere.

Aldaketa nagusia kanparoketa egun bakoitzean, hiru ekimen antolatuko direla

da. Saio horien artean, gainera, bertsolari ezagunekin egingo diren saio didaktikoak daude.

Idatzizko proba

Kanparoketa bakoitza idatzizko sariketarekin hasiko da. Hau eskolei soilik zuzendutako saioa izango da.

Lasarte-Orian, martxoaren 14an, herri ezberdinetako ikastetxeetako ikasleak elkartuko dira. Hain zuzen ere, Oiarzun, Donostia, Hernani, Urnieta, Donibane eta noski Lasarte-Oriako gaztetxoak Landaberri zein Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko haurrek izango dira bertsoekin duten trebetasuna erakutsiko dutenak.

Bertsoak jartzeko gaia emango zaie eta denbora jakin bat izango dute bertsoa sortu eta lana aurkezteko.

Saioan hautatzen diren lanak bat-bateko txapelketaren final egunean sarituko dira.

Ikasteko aukera

Jarraian, saio didaktikoa izango da.



Iazko herriko bertso-paper lehiaketako irabazleak Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendiren saioa entzuten.

Ikasleen eta gurasoen neurriko izango den bertso saio bat esainikoa dute inguruko bertso-eskolelako haur eta bi bertsolari ezagunek.

Lasarte-Oriako kasuan, Beasain eta Oiarzungeko bertso-eskolelako gazteak Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin batera arituko dira.

Amia Agjire bertsolaria izango da gaiak jarri eta gaztetxoei ariketarik proposatuko dizkiena.

Bertso afaria

Azkenik, bat-bateko txapelketaren kanparoketa izango da.

15 eta 18 urte arteko gazteek hartuko dute parte honetan. Herriko elkarte batean bertso afari formatuan egingo da bat-bateko kanparoketa saioa.

Arrieskalleta elkartean izango da Lasarte-Oriako bat-bateko kanparoketa, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Honetan Larrail, Oiarzun, Ordizia, Zaldibia, Zarautz eta Aretxabalelako gazteak lehiatuko dira. Aurkezle lanetan Amaia Agjire bertsolaria izango da.

Afariarako txartelak salgai daude www.bertsosarrerak.eu atarian eta 12 eurotako balioa dute.

Lanketa berezia

Bestalde, Eskolarteko txapelketa dela eta, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko aholkotasun proiektuaren arduradun den Unai Muñoa azaldu digunez, idatzizko bertson lanketa berezia egingo da herriko ikastetxeetako ikasleekin hilabete honetan zehar.

Eta ekimen honen barruan egindako bertso-paperekin saioa izango dutela aurreratu du Muñok, "bi ikastetxeetako lanak aztertuko dira eta maiatzean egin ohi den Aholkotasun jaialdian lan onenak sarituko ditugu".



Batez ere emakumeak hurbildu ziren ostiraleko hitzaldia, ostein afaria egin zuten.



Lasarte-Oriako emakume desberdinen talde batek bazkaria egin zuten Xirimiri elkartean.

Emakumeen eguna medio hitzaldia eta bazkaria.-

Ostiral arratsaldean Semblante Andaluz elkartean Yaiza Ruiz herritarrek eta Oporrak bakean egitasmoaren arduradunak Saharako kanpamenduetan emakumearen papera zein den azaldu zuten herrian bizi den Ailem Etlemidi sahararren laguntzarekin. Elkartean jendetza bildu zen hitzaldiaz gozatzeko, batez ere emakumeak. Ostein afaria egin zuten elkartean bertan. Iaz Emakumearen egunaren harira, Nerea Segura nutrizionista izan zuten hizlari. Bestalde, ostiral gauetan Goiegoin bildu ziren Emakumeen Zentroak antolatutako afarian, guztira 50 bat lagun.

Larunbatean berriz, martxoaren 8an bertan, paella jana egin zuten Lasarte-Oriako emakume ezberdinez osatutako koadrila batek. Bazkaria soila egiteaz gain, hainbat jokoren bitartez norberaren izaera, zaletasunak, sexualitateaz etab. lantzeko aprobetxatu zuten eguna. Koadrila ezberdinetako jendea elkarrekin harenartzen hasteko eta elkar ezagutzeko jokoak izan ziren. Behin bazkalduta eta postrean bizketoxoa jan ostean, joko gehiago egin zituzten eta ilunabarrean horietako batzuek kultur-eterako bidea hartu zuten Kukukuren antzerkia ikusteko. Finean, feminismoaren helburu eta kausa berberak elkar-tzuten adin-tarte ezberdinetako hainbat emakume lasarteoriatar martxoaren 8an.

Emakumeen Nazioarteko Eguneko obrak

Lan eta Lan taldeak eta Kukukak antzerki bana eskaini dute ostiral eta larunbatean

Kultur-etxeko auditorioa eta kafetegia martxoaren 8ko ekintzen lekuko izan dira asteburuan. Ostiral ilunabarrean Lan eta Lan antzerki taldeak "Cinco mujeres con el mismo vestido" obra interpretatu zuten 300 ikusleren aurrean. Kukuka dantza eta antzerki eskolak berriz, larunbatean eskaini zuten "Begiratu eta ikusi ez!" antzezlan, formatu intimoagoan. Obra ezberdinak izan ziren, ostiralekoak asko izan zuten koloretik zein umoretik eta larunbatekoa berriz gordinagoa izan zen, ilunagoa.

TXINTXARRI

Lan eta Lan taldearen "Cinco mujeres con el mismo vestido" antzerki amateurra izan zen asteburuan Emakumearen Nazioarteko egunaren harira egin zen ekimenetan lehena.

Kultur etxeko auditorioan 300 lagun bildu ziren (gehien gehienak emakumezkoak), herritarren obra umoretsua ikusteko eta tarteka barre algaraz ozenak entzuteko aukera izan zen.

Antzezlaneko protagonistak ezkontzen zen bikotearen lagunak izan ziren. Ospakizunak aurrera egin ahal eta zenbat eta gehiago edatzen zuten neurrian, komedia ktramilatzen joan zen.

Kukukak larunbatean

Manuel Lekuonan bertan, baina larunbatez, "Begiratu

eta ikusi ez" antzezlan egin zuten kafetegian Kukukak. Herriko antzerki eta dantza eskolako kideek adierazi zuten beti izan zuten Emakumearen Egunaren inguruan zer edo zer antolatzeko gogoia, eta aurrean lehen aldiz eskaini dute antzerki berezia.

Adin-tarte ezberdinetako emakumeek egindako irakurketak izan ziren antzerkiaren ardatza. Formatu txikiok lana izan zen, aretoko lana albo batera utzi eta sormena lantzeko parada eskaini zien obra sakon honek.

Zenbait momentutan gogorra ere izan zen, emakumeek bizi dituzten bazterkeria egoerak gordin-gordinean deskribatu zituztenean kasu.

Zuzendari lanetan Miren Gojenola aritu zen. Kukukako emakumeen irakurketa entzuztera dozenaka herritar hurbildu ziren kafetegira.



Kukukak ezohiko formatu eta eskenatokian aurkeztu du "Begiratu eta ikusi ez" obra herritarren aurrean, kultur-etxeko kafetegian.



GURE IKASLEEN AHOTAN



"MUREn metodologia etorkizunerako mundura bideratuta dago"

Cristina Rosado Alberdi lasarteoriatarra Energiaren Ingeniaritza graduko 1.ogo maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEAN.

Zergatik aukeratu zenuen Energiaren Ingeniaritza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAN? Gradu hau egitea erabaki nuen energiaren arloa oso interesgarria iruditzen zaidalako. Ate irekien jardunaldian egon nintzenean graduaren ikasgaiak gustatu zitzaizkidan eta MUREn metodologia erakargarria, oso praktikoa eta etorkizunerako mundura bideratuta dagoela dela pentsatzen dut.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte izandako esperientzia positiboa izan da. Unibertsitatean giro ona dago, instalazioak gradu honetarako ezin hobeto prestatuak daude (tailerra, talde lanerako gelak etab.) eta edozein galdera izanez gero, irakasleak beti erantzuteko prest daude.


Nola definituko zenuke Mondragon Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoa ir garrantzi asko ematen zaio?

Niretzat Goi Eskola Politeknikoan erabiltzen den metodologia hau berria da. Izan ere, kurso guztia teorikoa izan ordez, klasean ikasitako kontzeptuak aplikatzeko proiektu errealek daude. Gainera, lehenengo sehilabeteko honetan aurrera eramandako proiektuan zehar konturatu naiz praktikaren bitartez kontzeptuak hobeto ulertzen eta ikasten direla. Hasiera batean pentsatu nuen zailtasunak izango nituela metodologia honekin, baina azkar moldatzen zara.

MUTik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbitu hobetzeko?

Beharbada gehien gustatzen

zaidana, gradu hau bizitza errealerako eta etorkizunerako bideratuta dagoela. Hau da, ingeniartzaren munduan talde lanak garrantzia handia du eta MUK zehazki hori eskaintzen du. Bestetik, Orona Ideo Innovation Cityko kanpuz hau Arrasate eta Goierriko kanpusetatik oso hurbil ez dagoenez, antolatzen diren ekintza asko guretzat urrutitatu geratzen zaizkigu.



Lan eta Lan antzerki taldearen obran kolore gorrixak izan ziren nagusi.

LABURRAK.



Beltzako mutiak errebanxa gogoz zelairatu ziren.

Babyauto Zarautz-Beltzak nagusi Bilboren aurkako partidari, 53-12

Beltzak taldeak egur handi samarra eman zion Universitario Bilbaori Michelingo berdegunean jokaturako kadeteen Euskal Ligako neurketan.

Leerro guztietan jokatu zuten ondo, serio. Lehen minuturako Julien Fernandinok entsegua egina zuen. Hortik aurrerakoak Beltzakene joero erakustaldia izan zen. Aimar Mitxelena, Ibai Mitxelena, Andoni Amonarrirek entseguak egin zituzten eta Xalbat Amilibia baloia hiru zutoinen artean jaurtitzeko fin aritu zen. Atsedaldian markagailuak zioen emaitza 25-7.

Bigarren zatian ere Beltzakene indarra eta baloi jabetza agerian geratu zuen. Lehenez gain, Oihan Corcherok ere egin zuen bere entsegua. Azkenean 53-12 garaile. Bestalde, larunbat goizean 16 urtez azpikoek taldeak 17-5 irabazi zion La Blancari.

Bazpiko alebinak ederki lehen lasterketan

Bazpi txirrindulariak ederki hasi dute errepide denboraldia. Lehengo asteburuan Udaberri Sarian, Ibaetan eta Hondarribin izan ziren maila desberdinetako txirrindulariak. Taldeko txikiak alebin eta infantilak izan ziren fin ibili zirenak.

Hondarribiko saria proban alebin mailan Bazpiko gaztekoak lehen postuetan izan ziren. Asier Pozo eta Beñat Carbayeda izan ziren lehen bi postuetan.

Infantiletan berriz, lehen hogoien artean izan ziren Manex Altona, Iraitzi Illaramendi eta Martin Baztarrika gaztekoak.

Ibaetan, kadete mailako lasterketa izan zen, bertan Luken Carbayeda kadete mailako lehen lasterketa izan zuen eta 12. postuan amaitu zuen.

Udaberri Sarian, 13. postua eskuratu zuen Joan Ander Unanuek eta Xuban Erzakkin 19. izan zen.

Hurrengo asteburuan, Bazpi taldeak antolatzen duen Usurbilgo proban izango dira.

IGERIKETA.

Igerilari gazteak txukun

Otsailaren 22an, Lasarte-Oriako igerilekuan Kirol Zehaztasun Ligako 3 jardunaldia burutu zen.

Honetan Buruntzaldea IKFko benjamin eta alebinak ederki egin zuten igeri.

Benjaminak

2005. urtean jaiotako benjaminak eta 2004. urteko haur batzuk 50 m. bular proba egin zuten.

Nora Imaz izan zen taldeko nesketan azkarrena; mutiletan, berriz, 2005 urtekoen artean, Unai Barcina eta 2004 urtekoetan, Beñat Lizartza.

100 m. bular proba izan zuten 2004. urteko gaztekoek. Honetan, Jone Arzallusek Gipuzkoa osoko sailkapen orokorrean 5. pos-

tua eskuratu zuen; mutiletan taldeko azkarrena Eneko Lizaso izan zen.

Proba indibidualaz gain, 6x25 m. tximeleta erreleboa izan zuten eta bi talde lehiatu ziren.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, "erreleboa gogotsu eta txukun osatu zuten".

Honetan gain, lehen urteko benjaminetan "bular estiloan hobetzeko asko daukagula ikusi genuen", aipatu digu.

Alebinak

Alebinak adinaren arabera distantzia desberdinetan lehiatu ziren.

Lehen urtekoen artean, Leire Martin, Ainhoa Martin eta Aiora Casado 50 m. libre pro-

ARETO-FUTBOLA.

ISU play-off postuetatik gertuago

Partida garrantzitsua irabazi zion ostiralean Euskaldunari

Gipuzkoako Ligako hiru-garren eta bosgarren taldeen arteko norgehiagoka izan zen kiroldegian, ISU Leihoak eta Euskaldunaren artekoa. Buruntzaldeko bi taldeak aurrez aurre aritu ziren eta etxekoak gailendu ziren 5-3ko emaitzaz.

TXINTXARRI

Partida galtzen hasi zen ISU Leihoak, baina Ander Pexarromanen zuzeneko falta jaurtiketa batek jarri zuen berdinketa markagailuan. Zelai erdian borroka eta intentsitate handiko jokoa izan zen nagusi andoaindarrek aurrea hartu zuten arte. Lehen zatiaeren hondarreen ordea, Javi Solchagak areaz kanpotik sekulako ezkerkeda eman zion baloia eskudra guztiz berdinketa ezartzeko.

Bigarren zatian hobeto ekin zioten etxekoek, Aitor Hernandok bigarren zutoinean galduko baloi bat probestu eta aurretik jarri zuten etxekoak, 3-2. Bi goleko abantaila ere hartu zuten Pablok sartutako golari esker eta 5-2koa Pabloren beraren eta Pexaren batbiko zoragarri baten ostean



Ander Pexarromanek bi gol egin zituen, lehena falta jaurtiketa bidez.

etori zen, kontraerasoan sartu zuten zere bigarren gola Petxak.

Bi minuturen faltan Euskaldunak gola egin zuen. Mikel Ziganda ISUko atezainak penaltia gelditu, baina aldaratzea Andoaingo jokalarien onetara joan zen eta hauek ez zuten huts egin.

Aipatu legez, ISU taldea 3 postuan dago. Lehen bi postuetan Bilkoen Legorreta eta Oiarzun daude, bederatzita eta zortzita puntura hurrenez hurren, eta Eneko Molinaren mutilek ederki egin beharko dute lan denboraldia amaitzeko geratzen diren falta diren 5

jardunaldietan lehen postua eskuratzeko edo playoffetan sartzeko behintzat.

Aldaz H.K.

Bestalde, III. Nazional mailan Aldaz H.K. taldeak San Jorge Santurtziren aurkako partida zuten asteburu honetan.

Partida hau baino lehen sailkapeneko 7. postuan zegoen herriko taldea eta gertu zituen 5. eta 6.n dauden Inter Eder eta Elorriko Buskantzak. Oscar Garciaeren mutilek 7 jardunaldi dituzte maila mantentzeko, ez dute lan zaila izango izan ere beheko postuetatik urrun baitago taldea.



Buruntzaldea IKFko alebin eta benjaminak ederki ibili ziren Lasarte-Oriako jardunaldian.

bako Gipuzkoa osoko lehen postuetan izan ziren. Gainera, Leire garaile izan zen.

Leire eta Ainhoa Martin ere 200 m. bular proban sailkapenean ederki kokatu ziren. Leire txapelidun izan zen eta Ainhoa bosgarren.

2003 urtekoen artean, Unai G. Somovilla izan zen

azkarrena 50 m. libre eta 200 m. bular probetan eta bietan bere marka hobetu zuen.

Lander Sorozabal izan zen azkarrena bi proba hauetan. 2002 urtekoen artean eta nesken mailan, berriz, Irati Arzallus izan zen.

2001 urteko mutilen kasuan, 100 m. libre proba

izan zuten eta Xabier Alonso izan zen azkarrena.

Alebinak 4x50 m. bizkar errelebuak izan zuten eta bai nesketan baita mutiletan ere bi talde izan ziren lehiak.

Neskek lehen postuetan sailkatu ziren; mutilen taldeak berriz "bikain eta gogotsu aritu ziren".

— Agenda —

Larunbata 15, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Nazioa eta nortasuna

Ertza dantza taldeak N.A.N. lana aurkeztuko du. Dantza garaikidea, testua, bideoa eta zuzeneko musika uztartuz, nortasunaren eta nazionalitatearen mugetatik at eginiko bidaia eszenikoa da N.A.N. Lasarte-Oria Dantzan zirkuituko saioa. Sarrera, leihatilan 6,60 euro; internet bidez, 5,40 euro.

eta poesia landuko dituzte 3-6 urte arteko haurrek.

Bakarrikzeta

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Larunbata 15, 00:00etan
"Vaya semanita" edo "Euskadi Movie" saioetako Maribel Salas-ek umorezko bakarrikzeta eskainiko du. Gaztelaniaz.

ZULO ARETOA

Larunbata 16, 19:00etan
Esther Uriak "Al calor del humor en un bar" umorezko bakarrikzeta eskainiko du. Gaztelaniaz.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 14, 22:00etan
Def Con Dos Sound Sytem-ek "Dos Tenores Def" girako saioa aurkeztuko dute. Sarrera, aurretik 10 euro; leihatilan, 12 euro.

Ostirala 14, 23:55ean
Puxtero Dj-en rap eta metal saioa izango da.

Larunbata 15, 22:00etan
Kinky Bvov-ren kontzertua. Flamenko eta reggae nahasketaz gozatzeko garaia. Larunbata 15, 23:55etan
La Chinese & Cubo dj-en emanaldia izango da.

Irakurle-Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 18, 18:30ean
Hilabete honetako irakurle-txokoaan Juliana Wolf-en "Gela bat norberarena" liburua aztertuko da Uxue Alberdi dinamizatzailearen laguntzaz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 14, 20:00etan
Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Una cuestión de tiempo" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 16, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Lluvia de albondigas 2" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 16, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Una cuestión de tiempo" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

laren bideoforuma egingo dute. Jone Karres zuzendaria izango da solasaldian.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 11, 18:00etan
6-8 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurketa izango da.

AMARALIN LUDOTEKA

Osteguna 13, 18:00etan
Sentimenduk lanuz ipuin kontaketen barruan, "Jonas eta hozkailu belturtia" ipuina irakurriko da. Beldurra

Emakumearen eguna

EMAKUMEEN ZENTROA

Osteguna 13, 18:30ean
"Alarden seme-alabak" dokumenta-

— Herritarren txokoa —

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora ditue behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratz, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaiari garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gutxito dutenentzat atek zabalki ditzutela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean dituzte saioak eta Erketz EDT-ko kideak, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urteetik aurrerako haur eta gaztekoek ere Erketz Txikian dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefonoz zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

— Hemeroteka —

Duela 1000 ale

Duela mila ale, 1996ko martxoaren 15eko alean, Emakumeen Nazioarteko Egunari erreferentzia egin zitzaion TINTXARRIN Mari Paz Arteaga Michelingo langilea elkarrikzeta-tuta.

"Ezkundu eta gero lan egitea nahiko aurrerakoa zen", zioen titularrak.

Garai hartan, 33 urte zera-matzen jadanik Michelingo fabrikari lanean: "Ezkundu nintzanean lanean jarraitzea erabaki nuen. Orduan ezkontzen ziren emakue gehienek lana utzi egiten zuten. Horregatik, garai hartan, erabakia nahiko arrarora ez ezik, aurrerakoa ere izan zela uste dut. Nik makinaren aurrean egiten nuen lan eta hori ez zegoen ondu ikusia, ez baitzen emakume lana".

Lanean zergatik jarraitu zenuen galdetuta, diruagatik bakarrik ez zela izan argi utzi zuten: "Erabaki personal horren atzetik bazegoen beste zerbait: pertsona bezala osatzeko aukera neukan".

Ama, etxeokondrea eta gainera langilea izan zen Mari Paz Arteaga. Senarrak eta seme-alabek bere egoera "oso ondo" ulertzen zutela zioen, baina nolabaiteko erruduntasun sentimendua ere bazuela esan zuten: "Ez dakit, bizi izan dit erudun sentimendua, zenbait momentutan ezin izan naizelako nire seme-alabekin egon. Nik, halere, ez dut arazorik izan senarrak ardura handia izan du eta".

Errelebo sistemak sortzen zizkion arazoez ere mintzatu zen: "errelebo nola, nire bizimodu hala. Goizeko txandetan familiarekin egon eta galetasunak egiteko aukera dut, arratsaldekoetan etxeokondrea nola eta zaleketoan ia egun osoa lotan pasatzen dut", zioen.



Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
tintxarri@tintxarri.info

Iñigo Ibarburu Buruntzaldea IKT-ko igerialaria

“Finalean sartzea oso zaila zen”

Espainiako junior txapelketan 100 m. libre eta 100 m. tximeleta finaletan lehiatu zen

Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu otsailaren 27tik martxoaren 2ra Pontevedran izan da infantil eta junior mailako txapelketan lehiatzen. Honetan, lau probatan parte hartu behar zuen Lasarte-Oriako gazteak, 100 m. tximeleta eta 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probetan. 100 m. bi probatan finaletan egotea lortu zuen eta bere markak ere hobetu zituen. Gainera, tximeleta proban bere adineko hirugarren postua eskuratu zuen. Orain buru belarri ari da Espainiako Neguko Openarako prestatzen, honetan 100 m. tximeleta proban parte hartuko du.

Nerea EIZAGIRRE

Dominak, markak, txapelketak... Iñigo Ibarburu gazteak hamar urte daramatza igeriketa munduan. 16 urteko gaztea iaz Palma de Mallorcan izan zen infantil mailako Neguko txapelketan lehiatzen eta aurten Pontevedran izan da maila aldatuz, juniorra da orain. Nahiz eta mailaz aldatu, lau probatan egoteko txartela eskuratu eta hirutan lehiatu da. Harekin bildu gara txapelketaren nondik norakoak ezagutu eta neguko denboraldia amaitu duen jakiteko.

Zer moduzko esperientzia izan da Espainiako txapelketan lehiatzea?

Txapelketan ondo egon naiz, baina sentazioak aurreko asteokoa hobeak izan dira. Entrenamenduetan ongi nengoan. Hamazazpi prestatuntza egun egin nituen, baina azkenean txapelketa ikusita hurrengoetarako 14 egitea erabaki dugut. Izan ere, errendimendua jaitsi nuen.

Deskarga gutxiagorekin, ea zer egiteko gai naizen. Ea markak gehiago hobetzeko gai naizen.

Lan handia egin duzu denboraldian zehar eta markak hobetzen joan zara...



Iñigo Ibarburu Espainiako txapelketan epaileen azalpenak adi jarraitzen. BURUNTZALDEA IKT

Marka jaitsi nuen eta bietan finalean egotea lortu nuen, beraz primeran.

Eta 100 tximeletan hirugarren postua lortu zenuen... Juniorretan A finalean sartu nintzen baina adin desberdinetakoak gaude.

1997 urteko hiru igerialari sartu ginen finalean eta beraz, nire adineko hirugarren postua ziurtatu nuen.

Bigarren denbora zuenaren bila joaten saiatu nintzen. Horretarako, azkarrago egin behar nuen pasea eta azkar-pasa nintzen baina gero buelta asto kosta zitzaidan. Baina hirugarren postua ere kontuan izatekoa da.

Beraz, zu baino urte bete zaharragoekin lehiatu zara Juniorra zen maila eta honetan bi urte desberdinetako gazteak lehiatzen gara. Batetik nire adinekoak 16-17 urtekoak, junior lehen urtekoak eta bestetik urte bete zaharrago direnak, 1998 urtean jaio-takoak.

Nire adinarekin finaletan sartzea oso zaila zen handiekin lehiatu behar nintzelako baina zortea eta entrenamenduetan onak izan ditut eta bi proba horietan finalean izan nintzen. Tximeletan A finalean egun nintzen hori oso garrantzitsua da.

Derberdinasun handia dago Euskal Herriko edo Espainiako txapelketan artean?

Espainiakoak zailagoak dira, maila altuagoa dago.

Bertan lehiatzen direnak guk baino gehiago entrenatzen dute eta nik entrenatzen dudanarekin haien mailan egotea polita da.

Ea hurrengo urtean, indartsuago hasiko

naiz entrenatzen eta ikusiko dugu zer egiteko gai naizen.

Oraindik neguko denboraldiko probak dituzu egiteko? Bai, gutxi batzuk ditut oraindik.

Apirilean Espainiako Opena dugu eta hori prestatzen ari gara.

Sei aste falta dira eta entrenamendu planteamendua aztertu behar dugu. Ea nola iristen naizen fisikoki.

Absolutu mailako lehiaketa da eta 100 m. tximeleta proban lehiatuko naiz. Erkidego arteko txapelketan, Madril-en egin nuen gutxieneko marka bertan lehiatzeko eta Pontevedran ere marka hori hobetu nuen.

Nahi nuke taldeko beste norbaitek ere marka gutxieneko lortzea bakarrik ez joateko.

Zaragozan ere izango gara nazioarteko sarian. Honetan 100 m. tximeleta, 50 m. eta 100 m. libre probak egin behar ditudala uste dut.

Eta Gipuzkoako Federazio saria ere badugu, baina hau ez da helburua. Opena begira, prestatuntza nola doan ikusiko dugu bertan, garapena ona den aztertu eta udako denboraldia prestatzen hasi behar garen erabakiko dugu.

Beraz, oraindik ez duzue finkatua Udako denboraldiko prestatuntza noiz hasiko duzuen...

Oraingoz, Openaren ostein hasiko gara ekaina-uztaila aldera izango den Espainiako txapelketa prestatzen. Hau gainera, igerileku luzean egingen da.

Honetan ere 100 m. tximeletan hirugarren postua eskuratzeko dut helburu eta negukoaren antzera lau probatan izango naiz, 100 m. libre, 100 m. tximeleta 200 m. libre eta 50 m. libre.

Eta hilabetea hauetan beste marka gutxieneko lortzen saiatuko al zara?

Agian 400 m. libre probakoan saiatuko naiz.

Bestalde, Borja Apeztegia prestatzaileak 200 m. tximeletan ere saiatu behar naizela dio.

Baina nire ustez, hori bidean geratuko da. Abiadura eta potentzia dira nire ezaugarriak eta 200 m. egiteko, buff! Hori

Haitz Mitxelena taldeko kideari utziko diot.



Iñigo Ibarburu lan eta lan ari da absolutu mailako Espainiako Opena prestatzen. Ozean, Udako denboraldia prestatzen hasiko da, helburua berritoe Espainiako txapelketan fin egotea.